

**Emaizta garbia 888 milioi eurokoa da,
2006ko hiruhileko berdinean izan zena baino %3 handiagoa**

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

Ikuskatu gabeko kopuruak (FINA)

2007KO LEHEN HIRUHILEKOAREN EMAITZAK	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 1H07/1H06
KONTABILITATE EMAITZA (Milioi euro)				
ERAGIKETEN EMAITZA	1.604	845	1.407	-12,3
EMAITZA GARBIA	862	473	888	3,0
PROFORMA ADIERAZLEAK (Milioi euro)				
EMAITZA OPERATIBO DOITUA	1.584	974	1.409	-11,0
EMAITZA GARBI DOITUA	844	547	838	-0,7
ETEKINA AKZIO BAKOITZEKO				
Euro akzioko	0,71	0,39	0,73	3,0
Dolar akzioko	0,86	0,51	0,97	12,8

2007KO LEHEN HIRUHILEKOAREN DATURIK GARRANTZITSUENAK

- Hiruhileko horretako **emaitza garbia** 888 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hiruhileko berdinekoa baino % 3,0 handiagoa. Emaizta hori negozio guztiak hobetu direlako lortu da, Esplorazioa eta Ekoizpen negozioa izan ezik. Izan ere, negozio hori zehatua izan da prezioak jaitsi direlako eta dolarra ahuldu delako.
- Eragiketen emaitza** 1.407 milioi eurokoa izan zen, alegia, 2006ko lehen hiruhilekoan lortutakoa baino 197 milioi euro gutxiago lortu ziren. Emaizta txikiago horren arrazoiak honakoak dira: euroaren balioa handitzea dolarraren aurrean, petrolio gordinaren prezioa jaitea, Brent kalitatea 61,79 \$/bbl-tik 57,76 \$/bbl-ra igarotzea eta izakinen balioa aldatzea. Eragin negatibo horiek fintzearen, marketinaren, PGLren eta gas naturalaren zein petrokimikaren marjina handiagoekin orekatuak izan ziren partzialki.
- Joan den maiatzaren 9an **Akziodunen Batzar Nagusia** egin zen, eta bozkatutako gai zerrendako puntu guztiak onartu ziren. Hala, akzio bakoitzeko 0,36 euro gordineko dibidendu osagarriaren ordainketa onartu zen. Hortaz, 2006ko ekitaldiko dibidendua akzio bakoitzeko 0,72 euro gordinekoa izan zen, alegia, %20 hazi zen aurreko ekitaldian ordaindutako dibidenduari dagokionez. Era berean, Luis Carlos Croissier Batista jauna eta Ángel Durández Adeva jauna kontseilari independente izendatu zituzten. Hortaz, kontseilari kopurua 14koa izatetik 16koa izatera igaro da.

1.- FINKATUTAKO EMAITZAREN ANALISIA

Eragiketen emaitza 1.407 milioi eurokoa izan zen, alegia, 2006ko lehen hiruhilekoan lortutakoa baino 197 milioi euro gutxiago lortu ziren. Emaitza txikiago horren arrazoiak honakoak dira:

- Euroaren balioa handitzea dolarraren aurrean. Izan ere, 2006ko lehen hiruhilekoan 1,201 \$/euro-tik 2007ko lehen hiruhilekoan 1,311 \$/euro izatera igaro zen. Hortaz, hiruhileko horretan 105 milioi euroko talka negatiboa gertatu zen.
- Petrolio gordinaren prezioa jaistea, Brent kalitatean 2006ko lehen hiruhilekoan 61,79 \$/bbl izatetik 2007ko lehen hiruhilekoan 57,76 \$/bbl izatera igaro zen, eta horrek hiruhileko honetan 117 milioi euroko talka negatiboa sortu du.
- Birjartzeen prezioen diferentzialak salmenta kostuan (CCS) eta MIFO sistemak 214 milioi euroko eragin negatiboa sortu dute 2006. urtearekin alderatuta.

Eragin negatibo horiek fintzearen, marketinaren, PGLren eta gas naturalaren zein petrokimikaren marjina handiagoekin orekatuak izan ziren.

Fintze eta marketin eremuan, konpainiaren fintze marjinaren adierazgarria, 2007ko lehen hiruhilekoan, 7,3 \$/bbl-koa izan zen; alegia, 2006ko lehen hiruhilekoan izan zen 5,7 \$/bbl baino nabarmen handiagoa. Eragin horrek 140 milioi euro inguru hobetu du emaitza. Marketinean, Espainian zein Argentinan, komertzializazio marjinak aurreko urteko epe berdinekoak baino handiagoak izan dira.

Jarduera kimikoaren ezaugarri nagusia olefinen prezio handien ondoriozko oinarrizko kimikan marjina hobeak izatea da, eta horrek eragiketen emaitzan 49 milioi euroko hobekuntza izaten lagundu du.

Azkenik, gas eta elektrizitate eremuak gasaren komertzializazio-jardueraren aldeko portaera islatzen du Espainian.

EBITDA 2.036 milioi eurokoa izan zen; alegia, 2006ko lehen hiruhilekoa baino %13,5 txikiagoa. Akzio bakoitzeko mozkinak 0,73 eurokoa izan zen 2007ko lehen hiruhilekoan; 2006ko epe berdinean, aldiz, 0,71 eurokoa izan zen. Hiruhileko horretan akzio bakoitzeko irabazi garbia, dolarretan, 0,97 \$ izan zen; alegia, 2006ko hiruhileko berdinekoa baino %12,8 handiagoa.

Emaitza garbia 888 milioi eurokoa izan zen hiruhilekoan. Zenbateko horrek 2006ko lehen hiruhilekoaren emaitza %3,0 hobetzen du, eta 10 milioi euroko emaitza finantzario positiboaren eta hiruhilekoan %36,9ko zerga-tasa txikiagoaren eragina izan du; aurreko urteko epe berdinean, aldiz, %42 izan zen.

2.- JARDUERA BAKOITZEKO EMAITZEN ANALISIA

2.1.- ESPLORAZIOA ETA EKOIZPENA

Ikuskatu gabeko zenbakiak (FINA)

	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
ERAGIKETEN EMAITZA (Milioi euro)	916	396	625	-31,8
ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioi eurotan)	919	575	625	-32,0
GORDIN ETA LIKIDOEEN EKOIZPENA (Mila upel/egunear)	533,7	515,9	511,6	-4,1
GAS EKOIZPENA (*) (Milioi scf/d)	3.349	3.286	3.217	-4,0
EKOIZPENA GUZTIRA (Mila upel egunear)	1.130,2	1.101,1	1.084,5	-4,0
INBERTSIOAK (Milioi eurotan)	475	676	1.048	120,6
ESPLORAZIOAREN AMORTIZAZIOA (Milioi euro)	86	168	102	18,6

	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
ERREALIZAZIO PREZIOAK				
Brent (\$/Bbl)	61,79	59,68	57,76	-6,5
WTI (\$/Bbl)	63,47	62,92	58,27	-8,2
LIKIDOAK (\$/Bbl)	42,87	42,33	41,09	-4,2
GASA (\$/Mila scf)	2,07	2,46	2,53	22,2

1.000 Mcf/d = 28,32 Mm³/d = 17,809 Mbep/d

Eragiketen emaitza, 2007ko lehen hiruhilekoan, 625 milioi eurokoa izan zen. Emaitzaren aldakuntzaren azterketa argiagoa da Venezuela isolatzen bada. Izan ere, enpresa mistoetara migratzearen ondorioz izandako ekoizpen bolumen txikiagoak prezio handiagoekin orekatu dira, eta guzti horrek 5 milioi euroko talka negatiboa eragin du 2006ko lehen hiruhilekoan.

Venezuela kontuan izan gabe, **eragiketen emaitzak** ondokoen ondorioz jaitsi dira: petrolio gordinaren nazioarteko prezioa jaistea (117 milioi euro), oro har industriaren kostuak handitzea (65 milioi euro), lehenago aipatutako truke-tasaren eragina (50 milioi euro) eta amortizazio handiagoak (54 milioi euro).

Repsol YPF-ren likidoen saskia saltzeko batez besteko prezioa, Venezuela kontuan izan gabe, 40,78 \$/bbl izan da. Aurreko urteko hiruhileko berdinean, aldiz, 44,61 \$/bbl izan zen, eta 2006ko laugarren hiruhilekoan 42,06 \$/bbl.

Gasaren batez besteko prezioa, hiruhilekoan, Venezuela kontuan izan gabe, 2,07 dolarrean jarri da mila oin kubiko bakoitzeko; alegia, aurreko urteko epe berdinean baino %7,1 handiagoa. Batez besteko salneurriaren hazkundera Trinidad eta Tobagon eta Argentinan gasaren batez besteko salmenta prezio handiagoak izatearen ondorio da. Izan ere, azken horiek, hiruhileko honetan, 1,88 dolarrean iritsi ziren mila oin kubikoko, aurreko urteko epe berdineko prezioa baino %11 gehiago. Baina kontuan hartzen badugu prezioen hazkunderaren zati bat gasa esportatzeari ezartzen zaizkion zerga handiaren ondorio dela, bereziki Txilen, hazkunde horrek garrantzirik gabeko eragina dauka emaitzan.

Ekoizpen osoa 2007ko lehen hiruhilekoan, Venezuela kontuan izan gabe, 1.041.300 upelekoa izan zen egunear; %1,0 handiagoa aurreko urteko lehen hiruhilekoaren ekoizpenari dagokionez. Hazkunde hori, bereziki, Brasilgo Albacora Leste eremuaren ekoizpenari (19 kbep/egunear) eta, Atlantic LNGren laugarren trenaren gaitasun handiagoko funtzionamenduaren ondorioz, Trinidad eta Tobagon izandako gehikuntzari esker gertatu da. Gehitze horiek orekatuak izan dira, hein batean, Argentinan eremuak gainbeheratzearen ondorioz ekoizpen txikiagoa izan baita, Aljerian mantentze-lanak geratu baitira eta Bolivian gas-eskaera txikiagoa baitago Brasilen aldetik.



Likidoen ekoizpena 499.700 upelekoa izan zen egunean; hau da, aurreko urteko epe berdinean baino %1 gehiago. Ekoizpena ABBn (Argentina-Bolivia-Brasil) 380 kbep/egunean izan zen; hortaz, %2,7 hazi zen Brasilgo Albacora Leste eremuko ekoizpenaren ondorioz eta Argentinan ekoizpena %1,7 jaistearen zein Bolivian ere ekoizpena jaistearen ondorioz orekatua izan zen. Munduko gainerako lekuen ekoizpena 120 kbep/egunean izan zen, aurreko urteko epekoa baino %3 txikiagoa. Izan ere, Dubain ekoizpen txikiagoa izan zen eremuak gainbeheratzearen ondorioz, baita Aljerian ere, aurrerago aipatutako mantentze-lanak geratzeagatik. Hori guztia, hein batean, orekatua izan zen Kolonbiako eta Ekuadorko ekoizpenak haztearen ondorioz.

Gasaren ekoizpena 3.041 Mscf/egunean (541.510 upel/egunean) izan zen; 2006ko lehen hiruhilekoan baino %1,0 handiagoa. Gehikuntza, bereziki, Trinidad eta Tobagon gertatu zen (11 kbep/egunean), eta hori, hein batean, orekatu egin zen Aljerian gutxitzearen ondorioz (4 kbep/egunean).

Venezuelako ekoizpenari dagokionez, hiruhileko horretan 43,2 kbep/egunean igo zen; aurreko urteko epe berdinean, aldiz, 99,0 kbep/egunean igo zen. Jaiste hori, bereziki, enpresa mistoetara migratzearen ondorio da (46,5 kbep/egunean), baita PDVSAri egindako gas emanaldietan izandako mugen ondorio ere (9,4 kbep/egunean).

Lehen hiruhileko **inbertsioek** Esplorazio eta Ekoizpen eremuan 1.048 milioi eurokoak dira; hau da, 2006ko lehen hiruhilekoak baino %120,6 handiagoak. Hazkunde hori bereziki Mexikoko Golkoko (AEB) Genghis Khan-en %28 erostearen ondorio da, baita garapenean zein Canaporteko bergasifikazio instalazioetan eta Peruko LNG proiektuan inbertsio handiagoak egitearen ondorio ere. Garapenean egindako inbertsioek hiruhilekoaren inbertsio osoaren %36 izan ziren, eta Argentinan (%49), AEBetan (%15), Trinidad eta Tobagon (%13), Aljerian (%8) eta Ekuadorren (%5) egin ziren batez ere.

2.2.- FINTZEA ETA MARKETINA

Ikuskatu gabeko zenbakiak (FINA)

	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
ERAGIKETEN EMAITZA (Milioi euro)	603	244	637	5,6
ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioi eurotan)	605	281	633	4,6
PETROLIO PRODUKTUEN SALMENTAK (Milaka tona)	14.469	14.951	14.502	0,2
PGL SALMENTAK (Mila tona)	1.122	955	1.058	-5,7
INBERTSIOAK (Milioika euro)	134	474	215	60,4

FINTZE MARJINEN ADIERAZGARRIAK (\$/Bbl)	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
Espainia	4,61	4,39	6,54	41,9
ABB	8,42	8,65	10,11	20,1
Repsol YPF	5,70	5,69	7,28	27,7

2007ko lehen hiruhileko **eragiketen emaitza** 637 milioi eurora igo zen; 2006ko epe berdinean, aldiz, 603 milioi euroko emaitza izan zen.

Aldakuntzen funtsezko arrazoiak, baldintza positiboetan, fintze marjinen hobekuntzari eta marketin eta PGL jardueretan marjina-bolumen konbinazioaren jardunbide hobeari dagokie, eta, ordain gisa, izakinen gainean ondarezko eragin garrantzitsuari eta dolarra euroaren aurrean ahultzeari dagokie.

Fintze-marjina 1,6 \$/Bbl gehitzea gasolinaren spreads-ak indartzearen ondorio da eta, ondorioz, emaitza, gutxi gorabehera, 140 euro hazi da. Distilazioa antzekoa izan da, nahiz eta Espainian %3,1 txikiagoa izan Cartagenako eta Puertollanoko findegietako mantentze-lanak gelditzearen ondorioz.

Birjartzeen prezioen diferentzialak salmenta kostuan (CCS) eta MIFO sistemak 201 milioi euroko eragin negatiboa izan dute 2006. urtearekin alderatuta.

Erregai marjinak Espainiako zerbitzuguneetan 2006ko epe berdinekoak eta aurreko hiruhilekoak baino handiagoak izan dira. Hortaz, eragiketen emaitza 60 milioi euro inguru hobetu da.

ABBn, berezko marketinerako produktu garbien salmentak %6,6 hazi ziren aurreko urteko epe berdinari dagokionez, eta marjinak nabarmen hobetu ziren, bereziki urtarrila eta otsaila bitartean, produktuaren nazioarteko kotizazioaren eboluzioaren ondorioz. Beraz, marketin eragiketen emaitza 56 milioi euro hobetu zen.

PGL negozioari dagokionez, marjinak 2006ko epe berdinekoak baino handiagoak dira herrialde gehienetan, eta eragiketen emaitza hazten lagundu dute, salmenten bolumena %5,7 jaitsi den arren. Gutxitze hori Espainiako kanal txikizkarian (merkatuak atzera egin duelako eta tenperaturak leunagoak direlako) eta Argentinako handizkarian (produktuaren erabilgarritasun txikiagoa) sortu zen, eta gehikuntzekin orekatua izan da Perun (%15,6), Txilen (%10,5) eta Ekuadorren (%6,6).

Fintze eta Marketin eremuko **inbertsioak**, 2007ko lehen hiruhilekoan, 215 milioi eurokoak izan ziren. Inbertsioak, bereziki, une honetako fintze proiektuetara, eragiketarak eta instalazioak hobetzera, segurtasunera eta ingurumenara, erregaien kalitatera eta bihurtzera zuzendu dira.

2.3.- KIMIKA

Ikuskatu gabeko zenbakiak (FINA)

	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
ERAGIKETEN EMAITZA (Milioi euro)	39	145	88	125,6
ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioi euro)	40	89	88	120,0
PRODUKTU KIMIKOEN SALMENTAK (Mila tona)	1.168	1.149	1.147	-1,8
INBERTSIOAK (Milioi euro)	31	94	40	29,0

NAZIOARTEKO MARJINEN ADIERAZLEAK	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
Cracker (Eur/ton)	438	684	557	27,1
Europako deribatua (Eur/ton)	348	347	340	-2,2
Latinoamerikako deribatua (USD/ton)	238	331	351	47,7

Adierazgarriak lehengaiaren gaineko marjinen irudi dira, eta produktu petrokimikoen nazioarteko prezioetan oinarrituta daude erreferentziatzko merkatuetan. Adierazgarri horiek Repsol YPF-ren paper-zorro kimikoaren produktu esanguratsuenak hartzen dituzte barne, eta ekoizpen-instalazioen ahalmen nominalaren arabera neurtzen dira.

Kimika eremuko **eragiketen emaitza**, 2007ko lehen hiruhilekoan, 88 milioi eurora igo zen; 2006ko epe berdinean, aldiz, 39 milioi euroko emaitza izan zen.

Aldaketen arrazoi nagusiak Oinarritzko Petrokimikaren marjinak eta Latinoamerikako deribatua hobetzeari eta energien kostu txikiagoei dagokie.

Oinarritzko Kimikaren nazioarteko marjina handienak etilenoaren eta propilenoaren prezio handien ondorio dira, baita naften eta petrolio gordinaren kotizazioek izan duten murriztapenarena ere.

Latinoamerikako Deribatuari dagokionez, bolumenen hazkundera izan da negozioaren linea guztietan, baita marjinen hazkundera ere, eta horien artean metanolaren hazkundera nabarmendu da.

2007ko lehen hiruhilekoaren **inbertsioak** 40 milioi eurora igo ziren; aurreko urteko epe berdinekoak baino %29,0 handiagoak. Hiruhileko honetako inbertsio nagusiak honakoak dira: bentzeno instalazioa eraikitzea, 190 kt/urteko gaitasunarekin 2007an martxan jarriko dena; eta OP/SM instalazioaren gaitasuna %33 zabaltzea. Instalazio biak Tarragonan izango dira.

2.4.- GASA ETA ELEKTRIZITATEA

Ikuskatu gabeko zenbakiak (FINA)

	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
ERAGIKETEN EMAITZA (Milioi euro)	141	108	149	5,7
ERAGIKETEN EMAITZA DOITUA (Milioi euro)	111	106	149	34,2
INBERTSIOAK (Milioi euro)	83	92	48	-42,2

Eragiketen emaitza lehenengo hiruhilekoan 149 milioi eurora igo zen. Aurreko urteko epe berdinean, aldiz, 141 milioi eurora igo zen, eta, ondorioz, %5,7 hazi da. 2006ko lehen hiruhilekoan saldu ziren Enagasen akzioen eragina alde batera utzita, emaitzaren hazkundera %34,2koa izan da.

Gas naturalaren merkaturatze eta banaketa eremuetan erregistratutako Gas Natural SDG-ren emaitzen hazkundera garrantzitsuaren adierazgarri gisa hazi dira emaitzak. Emaitza horiek elektrizitatearen jardueran Espainian erregistratutako gutxitzea sobera orekatzen dute; jarduera horrek pool elektrikoaren prezioen beherakada jasotzen du. Bereziki Latinoamerikako jardueraren eta Espainiako gas naturala merkaturatzearen emaitzetan hazkundera nabarmentzen dira.

Espainiako gas banaketaren emaitzak Gas Natural SDG-ri aintzatetsitako ordainsariaren arabera gehitu dira 2007ko ekitaldirako.

Latinoamerikako emaitzen hazkundera banaketaren jardunbide onari dagokio, bereziki, Kolonbian. Argentinan, 2005 bukaeratik igotzeke zeuden tarifak ofizialdu dira. Emaitzetan izan diren hazkundera garrantzitsuagoak dira dolarraren eta tokiko txanponen debaluazioa kontuan hartzen bada euroaren aurrean.

Gas naturala Espainian merkaturatzeak etengabeko hobekuntza erakusten du. Hobekuntza hori konpainiak jarraitutako ildo komertzialaren ondorio da, alegia, merkatu liberalizatuan gas kontratuen zorroa eta merkatuaren egungo baldintzetara egokitutako prezioaren politika optimizatzearen ondorioa.

Gasean eta Elektrizitatean egindako **inbertsioak**, 2007ko lehen hiruhilekoan, 48 milioi eurokoak izan ziren; alegia, aurreko urteko hiruhileko berdinean baino txikiagoak. Inbertsio horiek Espainian banaketa-jarduerara eta elektrizitatea sortzeko proiektuetara zuzenduak izan dira bereziki.

2.5 KORPORAZIOA ETA BESTE BATZUK

Epigrafe honek Korporazioko gastuak eta negozioei inputatu gabeko jarduerak biltzen ditu. 2007ko lehen hiruhilekoan 92 milioi euroko emaitza negatiboa erregistratu zen, 2006ko lehen hiruhilekoan lortutakoarekin bat.

3.- EMAITZA FINANTZARIOA, ZORPETZEA ETA INBERTSIOAK

Ikuskatu gabeko zenbakiak (FINA)

ZOR GARBIAREN BILAKAERA (Milioi euro)	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 4.H
ZOR GARBIA EPEALDIAREN HASIERAN	5.870	4.396	-25,1
EBITDA	-1.918	-2.036	6,2
MERKATARITZA MANIOBRAREN FUNTSAREN ALDAKETA	-968	16	-
INBERTSIOAK (1)	1.410	1.250	-11,3
DESINBERTSIOAK	-252	-39	-84,5
DIBIDENDUAK (afiliatutako sozietateena barne)	28	452	1.514,3
ALDAKETA TASAREN EFEKTUAK (2)	-182	-53	-70,9
ORDAINDUTAKO ZERGAZ	334	355	6,3
BESTE MUGIMENDU BATZUK	74	85	14,9
ZOR GARBIA EPEALDIAREN AMAIERAN	4.396	4.426	0,7
ZOR GARBIA + LEHENTASUNEZKOAK, EPEA IXTERAKOAN	7.841	7.924	1,1

Zorpetze ratioa

ERABILITAKO KAPITALA (milioi eurotan)	25.883	26.755	3,4
ZOR GARBIA / ERABILITAKO KAPITALA (%)	17,0	16,5	-2,9
ZOR GARBIA + LEHENTASUNEZKOAK / ERABILITAKO KAPITALA (%)	30,3	29,6	-2,3

(1) Gehigarri moduan, finantza izaerako inbertsioak daude 127 milioi eurogatik, eta horrek 1.377 milioi euroko inbertsioa emango luke guztira (ikus inbertsioen taula).

(2) 2007ko martxoaren 30ean, euro 1 = 1,332 dolar

Konpainiaren zor garbia 2007ko lehen hiruhilekoaren bukaeran 4.426 milioi euron kokatu zen; 30 milioi euroko handitze txikia izanda, 2006ko abenduari dagokionez.

Hiruhilekoan sortutako EBITDA bolumenak, 2006ko laugarren hiruhilekoa baino %6,2 handiagoa izan denak, epe horretako inbertsioak 1.250 milioi euroekin, 2006ko dibidenduaren konturako ordainketa 440 milioi euroekin eta kanpoko bazkideen dibidenduaren ordainketa 12 milioi euroekin sobera finantzatzen utzi du.

Zor garbiaren ratioa erabilitako kapitalaren gainean %16,5ean kokatu da 2007ko martxoan; %0,5 gutxituta 2006ko abenduko txostenean jasotakoari dagokionez. Lehentasunezko akzioak kontuan izanda, ratio hori 2006ko abenduan %30,3 izatetik 2007ko martxoaren 31n %29,6 izatera igaro da.

Emitza finantzarioa 2007ko lehen hiruhilekoan positiboa izan da 10 milioi eurokin; 2006ko lehen hiruhilekoan erregistratutako finantza-gastuak, aldiz, 119 milioi eurokoak izan ziren. Emitza finantzarioan izandako aldaketa adierazgarri hori berandutze-interesak leheneratzearen ondorioz sortu da bereziki, eta berandutze-interes horiek 65 milioi euroko izaera fiskaleko hornidurei dagozkie.

Ikuskatu gabeko zenbakiak (FINA)

FINANTZA KARGAK (Milioi euro)	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
INTERES GARBIAK	94	72	83	-11,7
LEHENTASUNEZKO AKZIOEN ORDAINKETA	46	49	46	-
TARTEKATUTAKOAK, ERATORRIAK ETA HORNIDURAK	31	24	-26	-
ALDAKETA DESBERDINTASUNAK	-70	-18	-65	-7,1
BESTE BATZUK (DIRU SARRERAK) / GASTUAK	18	-32	-48	-
GUZTIRA	119	95	-10	-

4.- EMAITZEN KONTUKO BESTE EPIGRAFE BATZUK

4.1.- ETEKINEN GAINEKO ZERGA

Sozietateen gaineko zergaren tasa eraginkorra, 2007ko ekitaldi osorako, %40n aurreikusi da, 2006. urtekoa baino kopuru txikiagoa. Izan ere, Sozietate-zerbaren zerga-tasa Espainian murriztu egin zen, eta Dubaiko jarduerak bertan behera utzi ziren; azken horren zerga-tasa %98koa zen.

Halere, zerga-tasa eraginkorra lehen hiruhilekoan %36,9n kokatu da, aipatutako hornidura fiskalak leheneratzearen ondorioz. Epe horretan ordaindutako zerga 522 milioi eurora igo zen.

4.2.- PARTAIDETUTAKO SOZIETATEEN EMAITZA

Ikuskatu gabeko zenbakiak (FINA)

PARTAIDETUTAKO SOZIETATEEN BANAKAPENA (Milioi euro)	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	Aldakuntza % 07KO 1.H/06KO 1.H
E&E	17	9	15	-11,8
F&M	8	58	15	87,5
KIMIKA	-	-	-	-
G&E	1	-1	-	-
GUZTIRA	26	66	30	15,4

Gutxien partaidetutako sozietateen bidez lortutako emaitza 30 milioi eurora igo zen 2007ko lehen hiruhilekoan, Atlantic LNGren eta CLHren laguntzaren ondorioz bereziki. Aurreko urteko epe berdinean, aldiz, 26 milioi eurora igo zen.

4.3.- KANPOKO BAZKIDEAK

Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza, 2007ko lehen hiruhilekoan, 37 milioi eurora igo zen; 2006ko lehen hiruhilekoan, aldiz, 25 milioira igo zen. Emaitza hori La Pampillaren eta Andinaren emaitza hobeen ondorio da, bereziki.



5.- **GERTAERA GARRANTZITSUAK**

2006ko laugarren hiruhileko emaitzak argitaratu zirenetik konpainiak iragarritako berri garrantzitsuak honakoak izan dira:

Esplorazio eta Ekoizpen eremuan, Repsol YPF-ko presidente Antonio Brufauk eta petrolioaren Libiako estatu-enpresako presidente (NOC) Shokri Ghanemek I/R eremuaren garapenerako akordioa iragarri zuten oraintsu. Izan ere, eremu horretan 1.261 milioi "oil in place" petrolio upel daudela kalkulatu da, eta hori konpainiak bere historian egin duen petrolio aurkikuntza handienetakoa da. NC186 eta NC115 blokeetan kokatutako eremu garrantzitsu horren aurkikuntza, biak Repsol YPF-k partaidetuak, Murzuq arro partaidetuan kokatzen da, eta Repsol YPF-ri Libian ekoizpena eta erreserbak nabarmen hazten eta bere presentzia Afrikako iparraldean indartzen utziko dio datozen urteetan. Izan ere, eremu hori konpainiarentzat errentagarriena izateaz gain, datozen urteetan hazkunde handienetakoa izango duena ere bada. Repsol YPF-k NC115 eta NC186 eremuetan hartzen du parte. Eremu horiek kalitate handiko petrolio gordinaren 250.000 upel/egunean baino gehiagoko ekoizpena dute guztira, eta Repsol YPF-rentzat frogatutako erreserba garbiak, 2007ko martxoaren 31n, 114 milioi upelekoak ziren.

Repsol / Gas Natural, Stream, sozietate bateratuak gas natural likidotuaren (GNL) hiru itsasontzi berri sartuko ditu flotan, bat Naviera Elcanokoa eta beste biak Knutsen OASekoak. Repsolek aipatutako hiru itsasontzien kontratazioa sinatu du "time charter" modalitatearen menpe, eta sozietate bateratuko flotan sartuko dira, 2010ean, Peru LNG proiekturako. Itsasontzi bakoitzaren ahalmen nominala 173.000 metro kubikokoa izango da.

Joan den apirilean, Repsol YPF Europako petrolio-ustiategi onena bezala balioztatu zen **korporazioan**, Erantzukizun Sozial Korporatiboari dagokionez, eta kontinenteko lehen hamabiren artean dago The Good Company Ranking 2007 ikerketaren arabera. Ikerketa hori Kirchhoff Consultant eta Deloitte enpresek egin dute, eta kontinenteko 120 enpresa handien jarduera balioztatzen du. Davoseko Munduko Ekonomia-foroa egin zenean egin zen ezaguna aipatutako ikerketa.

Joan den maiatzaren 9an Akziodunen Batzar Nagusia egin zen, eta aurkeztutako proposamen guztiak onartu ziren, besteak beste, akzio bakoitzeko 0,36 euro gordineko dibidendu osagarria ordaintzea. Hortaz, 2006ko ekitaldiari dagokion dibidendua 0,72 eurokoa izan zen; alegia, aurreko ekitaldian ordaindutako dibidendua baino %20 gehiago.

Era berean, Luis Carlos Croissier Batista jn. eta Ángel Durández Adeva jn. izendatu zituzten kontseilari independente. Hortaz, kontseilari kopurua 14tik 16koa izatera igaro da. Azkenik, Administrazio Kontseiluak adostutako ondoko hauen izendapenak berretsi ziren: Juan Abelló Gallo jn., Luis Fernando del Rivero Asensio jn. eta Manuel Raventós Negra jn.

Madril, 2007ko maiatzaren 14a

Harremanak inbertitzaileekin

Helbide elektronikoa: INVERSORES@repsolypf.com

Web orria: www.repsolypf.com

Pº Castellana 278-280 28046

Madril (Espainia)

Tel.: 34 913 48 55 48

Faxa: 34 913 48 87 77

TAULAK

2007KO LEHEN HIRUHILEKOAREN
EMAITZAK

REPSOL YPF-REN EMAITZAK, OSAGAI NAGUSIETAN OINARRITUTA

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA-MARTXOA	
	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	2006	2007
EBITDA	2.354	1.918	2.036	2.354	2.036
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	1.604	845	1.407	1.604	1.407
Karga finantzarioak.....	(119)	(95)	10	(119)	10
Jarraipen gabeko operazioen z.a. emaitza.....	-	-	-	-	-
Zergen eta partaidetutako aurreko emaitza	1.485	750	1.417	1.485	1.417
Mozkinen gaineko zerga	(624)	(330)	(522)	(624)	(522)
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	26	66	30	26	30
Epealdiko emaitza	887	486	925	887	925
ONDOKOARI EGOTZ DAKIOKEEN EMAITZA:					
Kanpoko bazkideak	25	13	37	25	37
SOZIETATE MENPERATZAILEKO AKZIODUNAK	862	473	888	862	888
Akzioko sozietate menperatzaileari egotzitako emaitza (*)					
* Euro/akzioko	0,71	0,39	0,73	0,71	0,73
* \$/ADR	0,86	0,51	0,97	0,85	0,97

(*) Repsol YPF, SA sozietatearen kapitala 1.220.863.463 akziok osatzen du.

Dolar/euro aldaketak hiruhileko bakoitzaren itxieran:

1,208 dolarrek euroko 06ko 1. Hn

1,317 dolarrek euroko 06 ko 4. Hn

1,332 dolarrek euroko 07ko 1. Hn

REPSOL YPF-REN EMAITZAK, EZ ERREPİKARIEKIN EGOKITUAK *

Gaztelaniazko jatorrikoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsiua gailenduko da.

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	2006KO LEHEN HIRUHILEKOA			2006KO URTARRILA-MARTXOA		
	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	1.604	(20)	1.584	1.604	(20)	1.584
Esplorazioa eta ekoizpena	916	3	919	916	3	919
Finketa eta marketina	603	2	605	603	2	605
Kimika	39	1	40	39	1	40
Gas naturala eta elektrizitatea	141	(30)	111	141	(30)	111
Korporazioa eta bestelakoak	(95)	4	(91)	(95)	4	(91)
Karga finantzarioak	(119)	-	(119)	(119)	-	(119)
Jarraipen gabeko operazioen z.a. emaitza	-	-	-	-	-	-
Zergen eta partaidetutakoaren aurreko emaitza	1.485	(20)	1.465	1.485	(20)	1.465
Mozkinen gaineko zerga	(624)	2	(622)	(624)	2	(622)
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	26	-	26	26	-	26
Epealdiko emaitza	887	(18)	869	887	(18)	869

ONDOKOARI EGOTZ DAKIOKEEN EMAITZA:

Kanpoko bazkideak	25	-	25	25	-	25
SOZIALATE MENPERATZAILERAKO AKZIODUNAK	862	(18)	844	862	(18)	844

	2006KO LAUGARRREN HIRUHILEKOA			2006KO URTARRILA-ABENDUA		
	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	845	129	974	5.911	(135)	5.776
Esplorazioa eta ekoizpena	396	179	575	3.286	342	3.628
Finketa eta marketina	244	37	281	1.855	(43)	1.812
Kimika	145	(56)	89	353	(54)	299
Gas naturala eta elektrizitatea	108	(2)	106	469	(71)	398
Korporazioa eta bestelakoak	(48)	(29)	(77)	(52)	(309)	(361)
Karga finantzarioak	(95)	-	(95)	(482)	-	(482)
Operazio ez jarraituen z.a. emaitza	-	-	-	-	-	-
Zergen eta partaidetutakoaren aurreko emaitza	750	129	879	5.429	(135)	5.294
Mozkinen gaineko zerga	(330)	(55)	(385)	(2.220)	(9)	(2.229)
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	66	-	66	139	-	139
Epealdiko emaitza	486	74	560	3.348	(144)	3.204

ONDOKOARI EGOTZ DAKIOKEEN EMAITZA:

Kanpoko bazkideak	13	-	13	224	(112)	112
SOZIALATE MENPERATZAILERAKO AKZIODUNAK	473	74	547	3.124	(32)	3.092

	2007KO LEHEN HIRUHILEKOA			2007KO URTARRILA-MARTXOA		
	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua	Guztira	Ez errepikariak	Egokitua
Finantza-kargen aurreko operazio jarraituen emaitza	1.407	2	1.407	2	1.409	
Esplorazioa eta ekoizpena	625	-	625	625	-	
Finketa eta marketina	637	(4)	633	637	(4)	
Kimika	88	-	88	88	-	
Gas naturala eta elektrizitatea	149	-	149	149	-	
Korporazioa eta bestelakoak	(92)	6	(86)	(92)	6	
Karga finantzarioak	10	(65)	(55)	10	(65)	
Operazio ez jarraituen z.a. emaitza	-	-	-	-	-	
Zergen eta partaidetutakoaren aurreko emaitza	1.417	(63)	1.354	1.417	(63)	
Mozkinen gaineko zerga	(522)	18	(504)	(522)	18	
Bateratzeko sozietateen z.o. emaitzen partaidetza	30	(5)	25	30	(5)	
Epealdiko emaitza	925	(50)	875	925	(50)	

OPERAZIO JARRAIEN BIDEZKO SARREREN ANALISIAK

REPSOL YPF-REN KARGA FINANTZARIOEN AURRETIK

JARDUERAKA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA-MARTXOA	
	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	2006	2007
Esplorazioa eta ekoizpena	2.486	2.478	2.385	2.486	2.385
Espainia	54	35	26	54	26
ABB	1.364	1.422	1.328	1.364	1.328
Munduko gainerako herrialdeak	1.068	1.021	1.031	1.068	1.031
Fintzea eta marketina	11.508	8.875	10.205	11.508	10.205
Espainia	8.254	5.504	6.718	8.254	6.718
ABB	1.873	1.811	2.020	1.873	2.020
Munduko gainerako herrialdeak	1.381	1.560	1.467	1.381	1.467
Kimika	1.125	1.096	1.179	1.125	1.179
Espainia	838	828	866	838	866
ABB	197	200	210	197	210
Munduko gainerako herrialdeak	90	68	103	90	103
Gas naturala eta elektrizitatea	997	841	850	997	850
Korporazioa eta bestelakoak	(1.932)	(1.638)	(1.681)	(1.932)	(1.681)
GUZTIRA	14.184	11.652	12.938	14.184	12.938

OPERAZIO JARRAIEN ARABERAKO EMAITZEN ANALISIAK

REPSOL YPF-REN KARGA FINANTZARIOEN AURRETIK

JARDUERAKA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA-MARTXOA	
	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	2006	2007
Esplorazioa eta ekoizpena	916	396	625	916	625
Espainia	15	(8)	5	15	5
ABB	415	74	170	415	170
Munduko gainerako herrialdeak	486	330	450	486	450
Fintzea eta marketina	603	244	637	603	637
Espainia	483	252	407	483	407
ABB	81	(24)	162	81	162
Munduko gainerako herrialdeak	39	16	68	39	68
Kimika	39	145	88	39	88
Espainia	1	100	26	1	26
ABB	30	49	49	30	49
Munduko gainerako herrialdeak	8	(4)	13	8	13
Gas naturala eta elektrizitatea	141	108	149	141	149
Korporazioa eta bestelakoak	(95)	(48)	(92)	(95)	(92)
GUZTIRA	1.604	845	1.407	1.604	1.407

REPSOL YPF-KO EBITDAREN ANALISIA
JARDUERA KA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA-MARTXOA	
	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	2006	2007
Esplorazioa eta ekoizpena	1.400	1.240	1.115	1.400	1.115
Espainia	20	-	22	20	22
ABB	770	624	564	770	564
Munduko gainerako herrialdeak	610	616	529	610	529
Fintzea eta marketina	764	476	677	764	677
Espainia	581	394	400	581	400
ABB	119	38	200	119	200
Munduko gainerako herrialdeak	64	44	77	64	77
Kimika	91	124	138	91	138
Espainia	35	71	60	35	60
ABB	39	47	56	39	56
Munduko gainerako herrialdeak	17	6	22	17	22
Gas naturala eta elektrizitatea	172	151	183	172	183
Korporazioa eta bestelakoak	(73)	(73)	(77)	(73)	(77)
GUZTIRA	2.354	1.918	2.036	2.354	2.036

REPSOL YPF-REN INBERTSIOEN ANALISIA

JARDUERAKA ETA EREMU GEOGRAFIKOKA

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	HIRUHILEKO DATUAK			URTARRILA-MARTXOA	
	06KO 1.H	06KO 4.H	07KO 1.H	2006	2007
Esplorazioa eta ekoizpena	475	676	1.048	475	1.048
Espainia	1	1	1	1	1
ABB	218	297	227	218	227
Munduko gainerako herrialdeak	256	378	820	256	820
Fintzea eta marketina	134	474	215	134	215
Espainia	78	335	116	78	116
ABB	46	96	89	46	89
Munduko gainerako herrialdeak	10	43	10	10	10
Kimika	31	94	40	31	40
Espainia	25	43	26	25	26
ABB	3	16	6	3	6
Munduko gainerako herrialdeak	3	35	8	3	8
Gas naturala eta elektrizitatea	83	92	48	83	48
Korporazioa eta bestelakoak	36	64	26	36	26
GUZTIRA	759	1.400	1.377	759	1.377

REPSOL YPF-REN EGOERA BALANTZE KONPARATIBOA

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

(Milioi euro)

(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	ABENDUA	MARTXOA
	2006	2007
Merkataritza-fondoa	3.422	3.398
Beste aktibo ukiezin batzuk	1.156	1.161
Jabetzak, lantegia eta ekipoa	23.475	24.113
Epe luzerako tresna finantzarioak	1.170	1.261
Bestelako aktibo ez zirkulatuzaileak	903	934
Diferitutako zergagatiko aktiboak	913	891
Saltzeko aktiboak	249	5
Merkataritzako aktibo zirkulatuzaileak	11.069	11.458
Aldi baterako inbertsio finantzarioak eta Diruzaintza	2.844	2.759
AKTIBOA GUZTIRA	45.201	45.980
Ondare garbia guztira		
Sozietate dominatzaileari egotzia	17.433	18.198
Kanpoko bazkideei egotzia	609	633
Arrisku eta gastu zirkulatuzaileetarako eta ez zirkulatuzaileetarako hornidurak	2.957	2.918
Diferitutako zergagatiko pasiboak	2.707	2.667
Hainbat ekitalditan banatzeko diru-laguntzak eta sarrerak	224	239
Lehentasunezko akzioak	3.445	3.498
Maileguak eta zor finantzario ez zirkulatuzaileak	7.038	7.123
Ez ohiko zorra errentamendu finantzarioagatik.....	561	558
Zirkulatuzaileak ez diren bestelako zorrak	449	430
Maileguak eta zor finantzario zirkulatuzaileak	1.556	1.482
Merkataritza-hartzekodun zirkulatuzaileak	8.222	8.234
PASIBOA GUZTIRA	45.201	45.980
ADIERAZLE FINANTZARIOAK ETA RATIOAK:		
ZOR GARBIA	4.396	4.426
ERABILITAKO KAPITALA GUZTIRA	25.883	26.755
ROACE ez errepikarien aurretik	13,8%	13,8%

ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA
2006KO ETA 2007KO URTARRILA - MARTXOA

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

(Milioi euro)
(Ikuskatu gabeko zifrak)

Finantza Informazioari buruzko Nazioarteko Araudia aintzat hartuta egina

	HIRUHILEKO DATUAK	
	06KO 1.H	07KO 1.H
I. USTIAPENENKO JARDUEREN DIRU FLUXUAK		
Zergen aurretiko emaitza	1.486	1.410
Emaizari egindako egokitzapenak:		
Kanpoko bazkideak	25	37
Baliokidetasun-metodoaren bidez bateratutako sozietateen emaitza	(26)	(30)
Amortizazioak	733	734
Emandako hornidura operatzaile garbiak	121	(35)
Komertzialak ez diren aktiboak besterentzean lortutako emaitzak	(29)	(10)
Sortutako finantza-kargak	119	(10)
Beste egokitzapen batzuk	(75)	(60)
EBITDA	2.354	2.036
Merkataritzako eragiketa-funtsaren egiazko aldakuntza	(1.068)	(16)
Bateratutako sozietateei bateratzeagatik kobratutako dibidenduak	26	18
Ordaindutako zergak	(525)	(355)
Helburuetan aplikatutako hornidurak	(111)	(39)
	676	1.644
II. INBERTSIOKO JARDUEREN DIRU FLUXUAK		
Ibilgetuetan eta sozietateetan egindako inbertsioak:		
Aktibo ukiezinak	(20)	(21)
Jabetzak, lantegia eta ekipoa	(627)	(1.173)
Partaidetzak erostea bateratutako sozietateetan	(22)	(2)
Beste aktibo ez zirkulatzaileak	(90)	(181)
Inbertsioak, guztira	(759)	(1.377)
Desinbertsioak	84	45
	(675)	(1.332)
III. FINANTZAKETAKO JARDUEREN DIRU FLUXUAK		
Jasotako finantza-zor garbia (kitatua)	(257)	75
Ordaindutako finantza-kargak	(72)	(39)
Diru-laguntzak eta baliogabetutako beste pasibo ez zirkulatzaile batzuk eta beste batzuk	78	(14)
Banaturako dibidenduak	(372)	(452)
	(623)	(430)
ESKUDIRUA ETA ESKUDIRUAREN BALIOKIDEAK EPEALDI HASIERAN	2.648	2.557
Eskudiru-fluxuen saldo garbia (I, II eta III)	(622)	(118)
Beste aldakuntza batzuk eskudirutan eta antzekoak		
Sozietateak sartzeagatik	(5)	-
Truke-tasaren arabera	(7)	(13)
ESKUDIRUA ETA ESKUDIRUAREN BALIOKIDEAK EPEALDI AMAIERAN	2.014	2.426

TAULAK

2007KO LEHEN HIRUHILEKOAREN NEURRI
FISIKO NAGUSIAK

ESPLORAZIO ETA EKOIZPEN MAGNITUDEAK

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	Unitatea	2006	2007	%
		1. Hir.	1. Hir.	Aldakuntza 07 / 06
HIDROKARBUROEN EKOIZPENA	K Bep/egun	1.130,2	1.084,5	-4,0
Gordin eta likido ekoizpena	K Bep/egun	533,7	511,6	-4,1
- ABB	K Bep/egun	369,6	379,7	2,7
- Munduko gainerako herrialdeak	K Bep/egun	164,1	131,9	-19,6
Gas naturalaren ekoizpena	K Bep/egun	596,5	572,9	-4,0
- ABB	K Bep/egun	406,2	402,6	-0,9
- Munduko gainerako herrialdeak	K Bep/egun	190,3	170,3	-10,5

Oharra: Libia eta Aljeriako kontratuen ekoizpen garbia doitua izan da, kontuan hartutako aldi bakoitzarekiko. Oinarri moduan ekonomia interesa dago, neurri fisikoak eta finantza-datuak bateratzeko xedearekin.

KIMIKAKO MAGNITUDEAK

	Unitatea	2006	2007	%
		1. Hir.	1. Hir.	Aldakuntza 07 / 06
PETROKIMIKOEN EKOIZ. SALMENTAK	kt	1.168	1.147	-1,8
- Tasen arabera				
-Oinarritzkoak	kt	246	230	-6,8
-Espainia	Kt	82	65	-21,3
- ABB	Kt	50	46	-8,2
- Munduko gainerako herrialdeak	Kt	114	119	4,2
-Deribatuak	kt	922	917	-0,5
-Espainia	Kt	338	325	-3,6
- ABB	Kt	120	184	53,5
- Munduko gainerako herrialdeak	Kt	464	408	-12,1

FINTZE ETA MARKETIN MAGNITUDEAK

Gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

	Unitatea	2006	2007	%
		1. Hir.	1. Hir.	Aldakuntza 07 / 06
GORDIN PROZESATUA	M tep	14,1	14,0	-0,4
-Espainia	Mtep	8,7	8,4	-3,1
- ABB	Mtep	4,5	4,6	3,2
- Munduko gainerako herrialdeak	Mtep	0,9	1,0	8,3
PETROLIO PROD. SALMENTA	kt	14.469	14.502	0,2
• Espainia salmentak	kt	8.641	8.315	-3,8
- Berezko Marketina	kt	5.384	5.276	-2,0
- Produktu garbiak	Kt	4.383	4.356	-0,6
- Beste produktu batzuk	Kt	1.001	920	-8,1
- Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak	kt	1.862	1.664	-10,6
- Produktu garbiak	Kt	1.288	1.159	-10,0
- Beste produktu batzuk	Kt	574	505	-12,0
- Esportazioak	kt	1.395	1.375	-1,4
- Produktu garbiak	Kt	453	497	9,7
- Beste produktu batzuk	Kt	942	878	-6,8
• ABB salmentak	kt	3.845	4.025	4,7
- Berezko Marketina	kt	2.449	2.597	6,0
- Produktu garbiak	Kt	1.977	2.107	6,6
- Beste produktu batzuk	Kt	472	490	3,8
- Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak	kt	611	622	1,8
- Produktu garbiak	Kt	448	459	2,5
- Beste produktu batzuk	Kt	163	163	0,0
- Esportazioak	kt	785	806	2,7
- Produktu garbiak	Kt	410	299	-27,1
- Beste produktu batzuk	Kt	375	507	35,2
• Munduko gainerako herrialdetako salmentak	kt	1.983	2.162	9,0
- Berezko Marketina	kt	1.313	1.576	20,0
- Produktu garbiak	Kt	1.168	1.415	21,1
- Beste produktu batzuk	Kt	145	161	11,0
- Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak	kt	332	329	-0,9
- Produktu garbiak	Kt	252	269	6,7
- Beste produktu batzuk	Kt	80	60	-25,0
- Esportazioak	kt	338	257	-24,0
- Produktu garbiak	Kt	102	51	-50,0
- Beste produktu batzuk	Kt	236	206	-12,7

Merkatu Nazionaleko Gainerako Salmentak: operadore eta bunker salmentak barne.

Esportazioak: Jatorrizko herrialdetik adierazten dira

	Unitatea	2006	2007	%
		1. Hir.	1. Hir.	Aldakuntza 07 / 06
GLP SALMENTAK				
- GLP merkaturatua	kt	1.122	1.058	-5,7
- Espainia salmentak	Kt	627	570	-9,0
ABB salmentak	Kt	239	212	-11,0
Gainerako Latam salmenta	Kt	186	205	10,7
Munduko gainerako herrialdeetako salmentak	Kt	71	70	-1,2